

III. MIKROKONTAKIZUN LEHIAKETA

“OSASUNA: MEMORIA DUEN KLUB BAT”

[2023ko Apirila/ Ekaina]

2023ko Oinarriak

PARTE-HARTZEA

Mendillorri BHiko **DBHko 4. maila**ko ikasleei zuzenduta dago.

Mikrokontakizunak euskaraz edo gaztelaniaz idatzita egon beharko dute.

Gaia:

- Testu bakoitza **Osasuna Futbol Taldeko jokalaria eta zuzendarien biografietan** oinarrituko da, 1936ko Estatu Kolpearen ondoren errepresaliatuak izan baitziren demokraziarekin, askatasunekin eta justizia sozialarekin izandako konpromisoagatik, baita klubean eta Iruñean jokatutako paperarengatik. Futbol erakundeari eta garaiko bizitza politiko eta kulturalari egindako ekarpenak sistematikoki baztertuak, ezkutatuak eta isilaraziak izan dira.
- Historia klasean garaiko argazki-bilduma bat eta [Hezurraren memoria: Osasuna beti gorri](#) dokumentala erabiliko dira euskarri gisa.

BIDALTZEKO EPEA

- Maiatzaren 15a.

AURKEZPENA

Testu bakoitzak izenburu labur bat izango du.

Testuek **150 hitz** izango dituzte gehienez, eta **sinatuta izanen dira**, izena, abizenak eta taldea jarritz.

Testuak **izendatzeko modua**: Ikasturtea+ikasgela+bi abizen.

Adibidea: DBH4Hazurmendirodriguez.

EPAIMAHAIA eta EPAIA

- Epaimahaia Geografia eta Historia, Euskara eta Gaztelania departamentuetako irakasleek osatuko dute.
- Epaimahaiak kontuan hartuko ditu testuaren edukia, idazkera eta egilearen sormena.
- Argitaratzeko eskubidea: aurkeztutako lanak IES Mendillorri BHI ikastetxearen esku geratuko dira, eta ikastetxeak bere web orrietan, beste komunikabide batzuetan edo euskarrietan argitaratu ahal izango ditu, betiere egilea aipatuta.

SARIAK

DBHko 4. maila:

1. saria: erosketa-bonu bat (30 euro) eta lamina/diploma bat.
2. saria: memoria duen komiki bat
3. saria: memoria duen komiki bat

Lanak hizkuntza-ereduaren arabera baloratuko dira; hau da, sari horiek guztiak A/G ereduan zein D ereduan banatuko dira .

ERAKUSKETA eta SARIEN BANAKETA

- Landutako testu guztiak "Osasuna: Memoria duen Futbol Klub bat" erakusketan agertuko dira. Erakusketa hori, hala badagokio, ikastetxean antolatuko da, eta, aukera izanez gero, ikastetxetik kanpo.
- Sari-banaketa eta erakusketa **maiatza/ekainean** egingo da.

Aurkeztutako lanak ikusteko: <https://iesmendillorribhi.educacion.navarra.es>